

BERDINEN ARTEKO BITARTEKOTZA



MEDIACIÓN ENTRE IGUALES

BITARTEKOEN PROGRAMAREN ZEHAZTAPENAK

CONCRECIONES DEL PROGRAMA DE MEDIADORES

Programa honen helburua:

Gatazken konponbidean sakontzeko,
beharrezkoak diren gaitasun garapena bultzatzea.

Programaren arduradunak:

Elkarbizitza arduradunak (Zuzendaria eta ikasketa Burua).

Nork egingo du bitartekarien formakuntza:

Zuzendariak eta ikasketa buruak.

Objetivo del programa:

Profundizar en la resolución de conflictos
impulsando las capacidades que son necesarias para ello.

Responsables del programa:

Responsables de convivencia (Directora y Jefa de estudios).

Responsables de formación de los mediadores:

Directora y Jefa de estudios

BITARTEKOEN PROGRAMAREN ZEHAZTAPENAK

CONCRECIONES DEL PROGRAMA DE MEDIADORES

Definizioa:

Bi alderdiren arteko gatazka batean hirugarren bat bitarteko gisa sartzeari bitartekotza deitzen diogu. Bitartekoaren lana ez da arazoa konpontzea, arazoa dutenak beren artean moldatzen laguntzen baizik.

Programaren faseak:


1. Formakuntza: 5. mailako ikasle batzuk.
2. Bitartekoak: 6. mailan daudenean, formakuntza jaso zutenak, bitartekoak izango dira. Programa honen berri kurtso hasierako guraso bilera orokorrean gurasoei azalduko zaie.

Definición:

En un conflicto entre iguales llamamos mediación a la intervención de un tercero para la resolución del mismo.

Fases:

1. Formación: Parte del alumnado de 5º curso.
2. Mediadores: Cuando pasan a 6º los que hayan recibido dicha formación pasarán a ser mediadores. La información acerca de este programa se dará a las familias en la reunión de comienzo de curso.



NORI ZUZENDUTA A QUIÉN VA DIRIGIDO

Programa hau zuzenduta dago 3. zikloko ikasleei.

Gainontzeko mailetan programa hau ezagutu beharko dute:

1. nortzuk dira bitartekoak.
2. nola erabili daiteke bitartekoen laguntza.
3. Adostokiaren erabilpena.
4. Gatazkak konpontzeko belarri/ahoa sistema ezagutu eta erabili ikasgeletan.
5. Hausnarketak egiteko koaderno baten erabilera:
Koaderno magikoa.

Va dirigido al alumnado de 3º ciclo.

En el resto de cursos tendrán que conocer también el programa:

1. Quiénes son los mediadores.
2. Cómo utilizar la ayuda de los mediadores.
3. Utilización de la sala de mediación o punto de encuentro.
4. Conocer el sistema oreja/boca y utilizarlo en clase.
5. Utilizar un cuaderno para hacer reflexiones:

Cuaderno mágico.



NORTZUK DIRA BITARTEKOAK

QUIÉNES SON LOS MEDIADORES

Bitartekoak: 6. mailako ikasleak.

(5. mailan aukeratu eta formakuntza jaso dutenak) Borondatezko ikasleak dira. Behar baino borondatezko gehiago ateratzen badira, zozketa egingo da. Beti ere bitartekoen kopuru erdia jantokian gelditzen dela ziurtatu behar dugu.


Gela bakoitzetik 2 ikasle. Familiei jakinarazten zaie eta programa honetan parte hartzeko baimen idatzia eskatuz.

Formakuntza: HA/erlijio saio batzuk erabiliko dira.

Mediadores: Alumnos/as de 6º curso (que han sido elegidos y formados en 5º curso).

Son alumnos/as voluntarios. Si salen más voluntarios de los necesarios, se hará un sorteo. Se intentará que entre los mediadores por lo menos la mitad se quede a comer. Dos alumnos/as por clase. Se informa a las familias de que los alumnos/as van a participar y se les pide permiso para ello.

Formación: Se utilizarán algunas sesiones de atención educativa o religión.



BITARTEKOEN FORMAKUNTZA PROGRAMA

PROGRAMA DE FORMACIÓN DE LOS MEDIADORES

Landuko diren gaiak hauek dira:

1. Bitartekoen ezaugarriak.
2. Enpatia.
3. Entzumen aktiboa.
4. Asertibitatea.
5. Adostokia azaldu eta antolatu.
6. Akta betetzen erakusten zaie.
7. Maizago gertatzen diren egoera gatazkatsuak eta egoera hauen konponbide posibleei buruzko hausnarketa egitea.
8. Egoera gatazkatsu batzuk antzeztea.
9. Ikasle berrien harrera prozesua azaldu eta prozesu honen eskema idatzi.
10. Argazkiak egin. Hurrengo irailean karnet bat egingo zaiela azaldu.

Los temas que se trabajarán serán los siguientes:

1. Características de los mediadores.
2. Empatía.
3. La escucha activa.
4. La asertividad.
5. Explicar qué es y cómo se va a organizar el “punto de encuentro”.
6. Se les enseña a rellenar el acta.
7. Reflexión en torno a aquellas situaciones conflictivas que ocurren más a menudo y su posible resolución.
8. Representación de diferentes situaciones conflictivas.
9. Pasos a seguir a la hora de recibir a alumnos/as nuevos y redactar un esquema del proceso.
10. Hacer fotografías y el próximo curso recibirán su carnet.



BITARTEKOEN EGINBEHARRAK ETA MUGAK

FUNCIONES Y LÍMITES DE LOS MEDIADORES

Formakuntza jaso ondoren hurrengo ikasturtean (6. mailan daudenean) bitartekoak izango dira. Karneta bere argazkiarekin egingo zaie eta bere burua aurkeztuko dute 3. mailatik gorako gela guztietan.

Bitartekoen lehenengo eginkizuna kurtso hasieran:

IKASLE BERRIEN HARRERA:

LHko ikasle berri bat eskolara datorrenean, euren burua aurkeztu, zertarako dauden azaldu eta eskola erakutsi behar diote. Patio orduan laguntzen dute eskolako izkin guztiak eta pertsonak aurkeztuz. Gero patiora laguntzen dute. Hurrengo egunetan ea zer moduz dagoen eta lagunik egin ote duen galdetzen diote.

Una vez recibida la formación, el curso siguiente (cuando estén en 6º) serán mediadores. Tendrán un carnet con su foto y tendrán que presentarse en todas las clases a partir de 3º de E.P.

El primer trabajo de los mediadores será recibir a los nuevos alumnos/as que se incorporen al centro. Se presentarán, les informarán de cuál es su cometido, les enseñarán las diferentes dependencias del centro y les presentarán al profesorado (que les corresponda) y al personal no docente, preferiblemente a la hora del patio. Al día siguiente les preguntarán como están y si han hecho amigos/as.

BITARTEKOEN EGINBEHARRAK ETA MUGAK

FUNCIONES Y LÍMITES DE LOS MEDIADORES

Bitartekoekoen funtzioak eta mugak:

Gatazka soilik patioan edo jantokian gertatzen denean eskuhartuko dute.

Laguntza eskatzen dietenean parte hartuko dute:

- a- Gatazka dutenek laguntza eskatzen badiete.
- b- Zuzenean inplikaturik ez dagoen beste pertsona batek laguntza eskatzen badie ere.

Funciones y limitaciones de los mediadores:

Solo intervendrán cuando ocurra algún conflicto durante el recreo o al mediodía (en horario de comedor).

Intervendrán cuando:

- a- Los alumnos/as que tienen un conflicto así lo soliciten.
- b- Una persona que no esté implicada directamente, se lo solicite.

ADOSTOKIA

PUNTO DE ENCUENTRO

Zer da adostokia?

Ikastetxeko gela bat.


Gela horretan txoko bat prestatzen da: mahai bat eta bi aulki.

Aho handi bat eta belarri handi bat margotzen dira eta aulkietan itsasten dira. Horrekin irudikatzen dugu entzuteko tokia edo hitz egiteko tokia. Beste aulkia aparte gelditzen da, bitartekoa esertzeko.

¿Qué es el Punto de Encuentro?

Es un aula del centro. En esta clase se prepara una mesa con dos sillas.

En una de las sillas pegaremos el dibujo de una boca y en la otra una oreja. De esta manera representamos que mientras uno habla el otro escucha. En otra silla, aparte, se sentará el mediador.



ADOSTOKIA

PUNTO DE ENCUENTRO

Adostokia erabiltzeko prozedura:

Jolas garaian edo jantokiko jolas garaian, bitartekoen parte hartzea suertatzen bada, ADOSTOKIaren giltza eskatu behar dio arduradun bati (zuzendaritzako bati edo jantokiko arduradunari).

Hasieran arduraduna haiekin egon behar da. Gatazkan dauden bi partaideek txanda bana izango dute azaldutakoa adierazteko. Belarria dagoen tokian esertzen den partaideak entzuten dio besteari ezer esan gabe, berriz ahoa dagoen tokian esertzen denak bere azalpena egiten du. Bigarren momentu batean paperak aldatzen dira eta entzun duenak hitz egingo du eta aho txokoan egon denak entzungo dio besteari.

Procedimiento para utilizar el punto de encuentro:


Ya sea en el recreo o al mediodía, en horario de comedor, si se solicita la intervención de los mediadores, podrían utilizar el aula “punto de encuentro” pidiendo la llave al encargado (equipo directivo o encargado del comedor). Al principio el encargado tendrá que ir con ellos. Se establecerá un turno de palabra para cada una de las personas implicadas en el conflicto; de manera que mientras uno habla el otro escucha y al contrario.

ADOSTOKIA

PUNTO DE ENCUENTRO

Beharrezkoa bada, bi partaideekin beste txanda bat egingo da.
Soluziobide bat bilatzen da bi partaide ongi sentitzeko.
Saiatuko da bi partaide irabazle ateratzea.
Saihestuko dira galtzaile/irabazle edo galtzaile/galtzaile suposatzen duten soluziobideak.
Bukatzeke, akta bat egingo da.

Si fuera necesario se establecerá un segundo turno de palabra.
Se intentará buscar una solución de manera que las dos personas implicadas se sientan satisfechas.
Los dos tienen que salir ganadores.
Evitaremos aquellas soluciones en las que uno sea el ganador y otro el perdedor o los dos salgan perdedores.
Para terminar se rellenará un acta.



PatxiLarrainzar

I K A S T E T X E A